59-2

a :

kdikatzera.

# I Gure Amaren

(F. Brun)

I

Gure amaren oinetan loriaz betheak,
Bihotza sutan, gaur oro, gaude belhaunikatuak
Lurdeko Birjina, bihotza sutan gaur oro, gaude belhaunkatuak

Refrain:
Lurdeko Birjina, Lurdeko ama ona
Kur zaite gure gana Ametan hoberena
Lurdeko ama ona kur zaite gure gana Ametan hoberena

-2-

Churi churia zerutik, hegaldaka jina
Hor hurbil finkatu zira, usotan pollitena

-3-

Munduak bere guziak begira detzala
Jesusen ama maitea gure geldi dadila

-4-

Maite zaitut, ama ona, maite bihotzetik,
Oro deus ere ez zaizkit zu itzaliz geroztik!

-5-

Maite nezazu zuk ere, bizian hiltzean,
Lokar nadin egun batez, ama besarkatzean

# II O Jesus-haur ttikia

Airea: J'ai donné mon petit cœur

-1-

O Jesus haur ttikia,
Nere maite maitea,
Naizen guzia,
Zurea naiz, bai zurea,
Naizen guzia,
Zurea naiz, zurea!

-2-

Ez naiz segur handia,
Bihotza dut ttikia;
Jesus maitea,
Ttikiago zuk ostia,
Jesus maitea
Ttikiago ostia!

-3-

Zuk chumea ostia,
Bihotza nik ttikia;
Bainan handia
Gu bien amodioa,
Bainan handia
Gure amodioa!

-4-

Biak gare aldean
Biziren gu munduan,
Biak lanean,
Biak bizian, hiltzean,
Biak lanean
Bizian 'ta hiltzean!

-5-

Adios, Jesus ona,
Jainko-haur hoberena,
Zeruan bama
Iraganen duteguna,
Zeruan bama
Iraganen eguna!

5 Decembre 1918

III

# Jesus-haur ttikia

43

Air: sur le vieux Noël : Abre vaine crainte

-1-

Egiptoan eta, han, Nazarethen
O Jesus ttikia, zoinz prestu zinen!
Aitamak zintuen, biak choratzen,
Ziniotelakotz chit obeditzen!
Jesus ona, izaiteko zu bezalako
Zuri naiz jarraikiko

-2-

Jesus ona, beraz, bazinakien
Ttiki ttikitikan ja, obeditzen,
Obeditzen eta lanean artzen,
Eskuko erhien ongi bermatzen!

-3-

O
Obeditzen eta lanean artzen...
Hobeki oraino othoitz egiten!
Ilhuna zeneko hasi hurbiltzen,
Eskuak zintuen elgarri lotzen

-4-

Zer othoitza, hantchet, supazterrean,
Familia sainduan, arrats guzian!
Zer othoitza, gero, orgi-hastean!
Nun holakorikan, mundu gainean?

-5-

Amaren ichilik, gau-erditan,
Zu bethi othoitzez, ohe chokoan!
Niri loa zeraut jiten ohean!
Bihotza bederen dagola beilan!

-6-

Zoinen haur pullita, zoinen maitea!
Hoin ttikia eta hoinen handia!
Kenduz geroz niri Jesus-Ttikia,
Deus ez zaut gehiago mundu guzia!

Avril 1919

## IV Soldado galduei 1

-1-

Soldado, inguite maiteak,
Gure herriko umeak,
Hemen gare aita amak,
Haurride, adichkideak,
Bihotza doloratuak

-2-

Ama gabe, sahatsean
Gerla-toki ilhunean,
Egun batez, odoletan
Erori zareztenean,
Nor zinuten, han aldean?

-3-

Jesusek ikusi zaitu,
Am' onak besotan hartu,
Aingeruak kontsolatu,
Zure Patroinak pustatu.
Orok zerurat altchatu.

-4-

Non erori othe ziren,
Sekulan ez daf jakinen..
Bainan, badakit non zaren,
Zur' arima non diteken,
Martira non den ezartzen!

-5-

Zeruan, beraz, arima,
Hegaldaka iragana...
Eta zur' orhoitzapena,
Hor, bihotzean emana,
Atchikiren dugu barna.

-6-

Gorphutza Frantses lurrean
Arima aldiz zeruan,
Hilak bitez, gur' aldean,
Bizirik egon, herrian, ...
Berek salbatu Frantzian

Mai 1919

# IV Biba, biba Frantzia

Biba, biba Frantzia
Frantzia maitea,
Gaur goiti duk utzia
Nigar egitea!

-1-

Bortz garren urthean,
Goiz eder batean,
Hazilaren hamekan,
San Martin goizean,
Etsaia, aldairan
Bazoan lasterretan!

-2-

Zerua eder zen,
Orok disdiratzen,
Aireaz zerbait bazen!
Deusik ez sumatzen,
Haler' ikaratzen,
Ez dakit zer goaitatzen

-3-

Eta hor bet-betan,
Eliza dorrean
Ezkila zalapartan!
Ene bularretan,
Bihotza saltokan,
Zapart egitekotan

-4-

Orduan berean,
Alderdi orotan,
Eskual-herri guzian,
Frantzia maitean,
Mundu zabalean,
Ezkila ari zian!!

-5-

Oi! hori musika!
Jainkoa, zuk barka,
Eman naiz belhaunika!
Ezkila, ar joka,
Itzul eta pika,
Jozak, jo errepika!

-6-

Gerlaren hastean,
Egun aphalean
Jo huen intziretan;
Gerla finitzean,
Egun eder huntan,
Jozak, alegrantzian!

-7-

Ez nauke tokian,
Zangoek airean,
Nabilkate larrean...
Nere zintzurrean,
Oihu bat orroan,
Zalapartatzera zohan!

-8-

Biba Jainko Jauna,
Obai zu, lehena
Aiphatu beharrena!
Biba zu, Am'ona,
Lurdeko Birjina
Gure alde emana!!

-9-

Gure Clemenceauri,
Gure Foch gaitzari
Gure soldadoeri,
Gur' aitchikideri,
Gure hil maiteri,
Ohore guzieri!!!

Senpere
1918 Hazilaren 12an

# V Jesus-Haurra 3

## (Sehaska-Kantika)

-1-

Magnateran etzana, Jesus-Haurra,
Horra non zauden trochatua,
Horma gaichtoak ubeldua!
Magnateran etzana, Jesus Haurra,
Magnateran, Jesus, Haurra

-2-

Nigarretan, eztiki, Jesus Haurra,
Hei año hortan ari zira,
Ama gaichoa zuri beha!
Nigarretan, eztiki, Jesus Haurra,
Nigarretan, Jesus Haurra

-3-

Belhauriko ni ere, Jesus Haurra,
Zuri kontra naiz ni emana;
Mein dut, hor, bihotzean barna!
Belhauniko ni ere, Jesus Haurra,
Belhauniko, Jesus Haurra

-4-

Ez egin nigar, othoi, Jesus-Haurra,
Beroturen zaitut gogotik,
Musu emanez bihotzetik!
Ez egin nigar, othoi, Jesus Haurra,
Ez nigarrik, Jesus Haurra!

-5-

Hirriño bat egizu, Jesus Haurra,
Nor ez da zuri hurbilduren,
Nork ez zaitu maitaturen?
Hirriño bat egizu, Jesus Haurra,
Hirriño bat, Jesus Haurra!

Decembre 1919

VI

# Gora Gora Jesus

Gora Gora Jesus Jauna,
Hiletarik phiztu dena!
Gora Gora Jesus Jauna,
Hiletarik phiztu dena!
Gora, gora, bai gora
Gure Jesus Jauna

# VII Iguzki Sainduari

Melodie de Ch. Bordes

-1-

Iguzki sainduan,
Ostia churian,
Hor zare gordagian;
Zure aintzinean,
Gare oro eman
Ahuspez ikaretan

-1-

Munduak izitzen,
Debruak harritzen,
Irok naute harrötzen;
Zuri dut behatzen,
Eta naiz eztitzen,
Osoki sosegätzen

-3-

Ez othoi gu ganik
Urrun gan hemendik;
Zu itzaliz geröztik,
Gogoa ilhunik,
Etsituren dut nik...
O, ez itzal gu ganik

## VIII Ama

(R. M. Azkue)

1

"Ama! Bihotzean min dut eta zure gana
oihuz oihuz heldu naiz
oi ama ona, ene ama!"

2

" Haurra bihotzean zuk min eta ene gana
Zato zato lasterrez
haur maitena, ene haurra! »

3

" Ama! auhenetan jina nintzen zure gana
Gau da gau da barnean
nik nuen mina, ene ama! »

J. Barbier.

# IX Osti churian, o ene

(Abbé Louis Boyer)

Osti churian, o ene Jesus ttikia,
Zombat zaren zu maitia

-1-

Zuhaurek erranik, hor zaude ostian,
O sar zaizkit laster ~~—~~ nere bihotzian!

-2-

Adoratzen zaitut hor zure ostian (bis)
O sar zaizkit...

-3-

Nik merezi gabe hor zare ostian (bis)
O sar...

-4-

Hitz bat zuk erranik hor zure ostian (bis)
O sar...

-5-

Fidatzen nitzaitzu hor zure ostian (bis)
O sar...

-6-

Maite maite zaitut, hor zure ostian (bis)
O sar...

-7-

Ez gehiago luza hor zure ostian (bis)
O sar...

# Nere Kantikak

## Gerlako kantikak

# X Joanna Dohatsuari

Musique de Ch. Dufau

## Errepika

Joanna Dohatsua, zuri beha gaude,
Zeru gainetik aldiz, guri beira zaude,
Eskualdun haurren ganik badukezu galde,
Lehenago bezala zato gure alde !

-1-

Lehenago bezala, Frantsesen herria
Dena zauritua dago, aphal erroria !

-2-

Arimak ilhumbean, oro herstturetan,
Auhenik baizik ez da, bazter guzietan !

-3-

Bainan berriz oraino zeruko Jainkoa
Gutaz da, zuri esker, urrikaltzekoa

-4-

Zato, Zato, Joanna, gure laguntzera,
Etsaien eskutarik gure salbatzera !

-5-

Eman gaitzazu laster libretasunean !
Etsaia da urruntzen, hurbil zarenean !

## XI Joanna Dohatsuari

(Abbé Brun)

Joanna handia,
Joanna maitea, } bis
Abrikalmendu!
Zuk egin Frantzia,
Harmetan guzia, } bis
Jaunak jo du!
Zuk gerizaturen daukuzu,
Salba [illegible] gaitzazu

# XII Oi Jainko samurra

Air : Coeur transpercé pour nous

(Le Mintier)

-1-

O Jainko samurra, oihuz gaude zerura,
Urrikal zaizkigu, urrikal zaizkigu!
Frantzia maitea joana da gerlara,
Orok zuri "Hel" egiten dugu,
Othoi Jauna, laster laster urrikal zaizkigu!

Cor Jesu sacratissimum,
Miserere nobis!

-2-

Onak itzalean, gaichtoak agerian,
Jainko hasarrea, urrikal zaizkigu!
Justuen auhenak gora doaz airean!
Nigarretan begiak dauzkagu!
Othoi Jauna, laster laster urrikal zaizkigu!

-3-

Frantzes herriaren patroin bothoretsua,
Jondoni Mikael urrikal zaizkigu!
Zure gana doa gure othoitz kartsua,
Bai, bihotzez othoizten zaitugu!
Othoi, othoi, laster laster urrikal zaizkigu!

# XIII Jon Doni Mikael 8

Errepika

Jondoni Mikael, geriza Frantzia!
Zu baitan eman du fidantza guzia!

Koplak

-1-

Handiak dira gure hobenak,
Handiago oraino auhenak;
Frantses hainitz dira hobendunak,
Bainan oroz nigarrez daudenak

-2-

Hobenari baduzu behatzen,
Nehor guti justo da kausitzen,
Ikuskitzu bihotzak arrailtzen,
Aldi guziak bulharren jotzen!

-3-

Zarrak... ez dire herri guzia,
Ez da oro bardin itsusia.
Ez ahantz haurren inozentzia:
Horra hoxia zinezko Frantzia!

-4-

Haur hoiekin gure soldadoak
Ditezke zure gogarakoak!
Zer diren hoik eta nolakoak,
Gerla huntan badaki Jainkoak

-5-

Beha beraz Frantses-Herriari
Hari ekhar laguntza, sokorri;
Begiak eta eskuak zuri...
Zuri dago bere Patroinari

# XIV. Oi Maria, ama maitea !

Air : O Marie conçue sans péché
Ch. Decker

Errepika

Oi Maria, ama maitea,
Othoi, salba salba Frantzia,
Oi Maria, ama maitea
Othoi, salba salba Frantzia !

-1-

Frantziarentzat, oi ama ona,
Belhauniko ni emana,
Nigarrez nago, ni, zure gana,
Beha zaguzu, Birjina !

-2-

Hobenduna da gure Herria,
Hobendun bainan eria.
Abrikal zaizko, othoi, Maria,
Senda zaiozu zauria !

-3-

Zombat on den zure othoiztea !
Milesker, ama maitea !
Zuri zor dut Frantses egoitea,
Zuri... libro izaitea

Août 1914

# XV Oi Maria, Erregina maitea

Air : N. D. du Perpétuel Secours

Oi Maria, Erregina maitea,
Beha zure haurren gana
Oi Maria, Erregina maitea,
Beha gure gana ! (3 aldiz)
Gure gana ! (Akabatzean)

XVI

# Mende trichte huntan

(Invocation)

Abbé Herfelinck

Mende, trichte huntan,
Ama Birjina,
Othoitzak, orotan,
Doaz zu gana:
Agur, agur Maria,
Agur, agur Maria!
(2 fois)

# XVII Gure haurrak gure

Airea: Aurrera

-1-

Eskualdun ait'ama lokhartuak,
Iratzar, ez egon uzkurtuak,
Etsaia da ja hurbildua,
Zuen haurrez jelostua

Errepika

Gure haurrak, gure haur maiteak,
Guhaurenak dira eta ez bertzenak,
Gure haurren arima gaichoa
Ez duk izanen, etsai gaichtoa!

-2-

Guhauri ezin nehola lotuz,
Doazi haurreri atrebituz,
Heien buruz, Jaunak emanak,
Baitugu aztapar onak

-3-

Zatozte beraz bai lausengaka,
Zatozte bardin heiagoraka,
Otsoaren orro marrumak
Ez tu lotsatzen ait'amak

-4-

Elizak, hil herritako hilak
Ditzue oro arroatuak,
Jainko Jauna gure lekhuko,
Haurrak zauzku gelditzeko

-5-

Eskualdun ait'ama maiteak,
Barna har zuen egimbideak:
Haur ttipia fedeaz hazi,
Jainkoaz dadien bizi

-6-

Oi Jesus! haur ttipiño izana,
Behazu Eskualdun haurren gana;
Zuk zerutik zainduz geroztik,
Nork khenduren tu gu ganik?

## XVIII Gazte Eskualduneri

Aire beraren gainean

-1-

Jainkoak egin nau Eskualduna,
Aitamek moldatu fededuna,
Gaztea naiz eta lerdena,
Dena Jesus onarena

Errepika

Bertze batzuk eman dezatela
Plazetaretan higatu duten ahala,
Hogoi urthe dituk, neri odola,
Jainkoak beretzat har hezala!

-2-

Dembora ilhun eta dorpeak
Doazi aspaldiko urtheak,
Ilhumbeen kasatzaileak,
Horra Eskualdun gazteak,

-3-

Oi Jesus, nere Nausi maitea,
Zer duzu nahi guk emaitea?
Naizena, ni guzi-guzia,
Oro naiz oro... zurea

-4-

Errege guziek badituzte
Ondoan, ainitz soldado gazte,
Gure gaztek Jesus, zu zauzte,
Errege harturik maite

-5-

Behazu non diren zure haurrak
Zuretzat huna heien bulharrak;
Zuretako bai zure kharrak,
Ororen bihotz sukarrak

-6-

Etsaia orai ager dadila!
Oldarrez, indar egin dezala!
Kusiren du azkar dagola,
Gure zainetan, odola...

# XIX Eskualdunek

## Kristo Erregeri agur

Airea: Jainkoaren ama, ama guziz ona

### Errefrika

Kristo Erregeri Eskualdunek agur
Kristo Erregeri agur, agur (berriz)

-1-

Itsaso, mendiak, ibai, zelaiak,
Zuretzat eginak, dira zureak,
Ureko uhainek,
Mendiko oihanek:
" ~~Kris~~ Kristo, agur"!

-2-

Airean dgatzan chori ederrek,
Lurreko ihizi handi, hazkarrek,
Pentzeko loreak,
Zeruko izarrak:
"Kristo, agur!"

-3-

Aingeru guzien Errege Jauna,
Errege're zira Gizonarena,
Nun da Erregerik,
Zu bezalakorik?
Kristo, agur!

-4-

Erregen Errege' hola zirena,
Nola othe zira atze egina
Zuhauren etchean,
Zure erresuman?
Kristo, agur!

-5-

Tokiz toki zira herrestatua
Mihi guzietan laidostatua!
Orozen Errege,
Trufatzen zaituzte!
Kristo, agur!

-6-

Orotarik kampo emana zira...
Zato gurekilan Eskual-Herrira!
Zure gira oro,
Orai eta gero!
Kristo, agur!

-7-

Lur hau oro zuri kendurik ere,
Zerua gelditzen zaugu halere!
Zeru hortarat gu,
Helaraz gaitzazu!
Kristo, agur!

# XX Izpiritu Sainduari

J. Mégrou

Izpiritua, Jainko ona,
Argi orotan handiena,
Zato, zato laster, zato gu gana!
Gu bis { Zu baitan par zaite, par zaite barna,
Gutan emazu ephel dena!

# XXI Ama Birjinaren Litaniak

Sur l'air des Litanies de Ch. Bordes

-1-

Birjina Maria, Ama maitea,
Jaunaren graziaz zare bethea,
Zeru guziaren edergailua,
Bildoch eztiaren Ama Saindua!
Zure haurrez urrikal zaite!

-2-

Zeru beltzenean izar garbia,
Lanhoen erdian, argi-zaria,
Itsaso gaichtotik libra gaitzazu,
Marinela, oihuz zuri dagozu
Zure haurrez...

-3-

Elhurra bezembat churi zarena
Notha-gabekoa, Ur garbiena,
David Erregeren haur saindua,
Josep garbiaren espos izana!
Zure haurrez...

-4-

Arrosa churia, oi Ama ona,
Erregina zare Aingeruena;
Gerla guzietan gure laguntza,
Debruari buruz gure laguntza.
Zure haurrez...

-5-

Zeruko athea egin zarena
Guri Erregintzat Jaunak emana,
Bekatoresentzat othoitz egizu,
Oro besoetan tinka gaitzazu
Zure haurrez...

-6-

Eliza-Amaren begiralea
Aita Sainduaren sustatzailea,
Frantses-Herriaren arthatzailea,
Etsai handienen bentzutzailea!
Zure haurrez...

-7-

Gure herstureetan lagunt gaitzazu,
Eskualdunak oro zure gaitutzu.
Lurdeko Birjina, urrikalmendu!
Zu nahi zaitugu orok maitatu!
Zure haurrez...

# XXII Jaun. Goikoari

*Aire zahar baten gainean*

-1-

Jainko Jauna, zuk eginak dira mendi handienak,
Zerua hunkitzeraino gora altchatzen direnak
Mendien zolan bethi samurrik lehertzen diren uhainak,
Nork egin ditu eta nun sekulan halako lanak?

-2-

Mendi-punttan agertzen den iguzki handi ederra,
Ilhunabar guzietan jalitzen den arth' izarra,
Itsas gainean, zazpi kolore altchatzen den ortz'adarra,
Zuk, dituzu aurtikitzen zuhaurek nahi tokira

-3-

Gaztena, haitz' ta phagoak, oihanetan landatuak,
Gure lur eskualdunetan zuk zerutik hostatuak
Chutik dagozi, bethi ederrik, oro zahar okhituak;
Erroak ifernuraino barna kurumilkatuak

-4-

Phentze pollitten erditik, kantuz doan ithurria,
Ar bazterreko sasian leiratuz dagon choria,
Sorhopiletan churi 'ta gorri luchatuz doan lorea,
Obra miresgarri hori ez dea oro zurea?

-5-

Kampoetan zabaltzen den ogi eder urhezkoa,
Harrien artetik irriz ageri mahats-molkoa,
Nork erein ditu, zeru gainetik, baizen 'ta zuk, Jaun goikoa!
Ahurra zabalduz duzu hedatu zure eskua.

-6-

Ibranoak borduetan, kaskoetan bas'ahuntzak,
Oihan zolan ihiziek, arbola beltzegan huntzak,
Desertuetan orroaz dauden lehoinak, tigreak, hartzak,
Gora erraiten dauzkute munduan zuk utzi hatzak

-7-

Bas'ihizi handietan balinbazaitut laudatzen
Gauza ttipi-ttipietan ez zaitut ez nik mendratzen:
Ottia eta chinhaurrittoa eder zaizkit iduritzen,
Lehoin hazkarrak bezanbat erleak zaitu handitzen.

-8-

Chimichtak zeru guzia noiz baitu ere urratzen,
Zure hasarre pindugaz berehala naiz orhoitzen;
Barrukietan kabalak dira marrumetan ikaratzen,
Eta supazter chokoan lazturikan gu zeinatzen

-9-

Gogoetan nagolarik, gaua horra nun den jautsi,
Izarrak zeru beltzean bederazka phizten hasi;
Jainko onaren begi argiak ziztela dut ikasi...
Mahuma (1) urrun zazue, igorrazue ihesi!

-10-

Gauza orotan zarena, maite zaitugu orotan.
Jainko on eta handia, atchik gaitzazu zubaitan!
Itsas gainean hi mariñela, hi artzaina mendietan,
Jainko hortaz orhoit bethi; ez ahantz zuen onetan!

(1) Mahuma = Izpiritu gaichtoa



## XXIII Andredena-Mari Abozt[a]koa

Air: Cantilène de Ste Cécile (8e siècle)

-1-

Egun Mariaren phesta ederrena
Zeru gainetarat egun igarana!
Haren bidera Jainkoaren Aingeruak
Airean dira hegalez abiatuak

Errepika

Birjina Sainduena,
Zeruko Erregina!

-2-

Zerurat Maria heldu bezein laster,
Miletan gehiago da zerua eder!
Kristoren sahetsean,
Gure Ama da eman
Errepika

-3-

Aingeruen tropak musikan du kantatzen,
Lur gainean ere gare bozkariatzen!
Andredena-Mariaz, bihotzak du su hartzen,
Erregina handia suarki du laudatzen!
Errepika

-4-

Zuri oihuz, oi Maria Birjina,
Gaude oro fidantzaz betheak;
Zaude bethi guretzat ona!
Orhoit gu garela zureak!
Ardiets othoi behar den grazia,
Goza dezagun horko bizia,
O Ama Birjina!!

Juillet 1895
1895

## XXIV Agur Maria labrua

Air: Ô Tendre Mère

Abbé Soreau

Agur Maria
Graziaz bethea
Jauna da zurekin, oi Maria!
Agur Maria
Graziaz bethea,
Jauna da zurekin, oi Maria!
Agur, agur, agur Maria

## XXV Gure Amari

Air: Quand il mourut sur le Calvaire

-1-

Munduko gauza ederrena
Ama batek duen bihotz ona,
Munduko Ama hoberena
Zu zare gure Ama-Birjina!

Errepika

Behazogun gure Amari!
Ama behazu zure haurrari!
Eskuak zabal beharrari,
Izan gaitzazu gu urrikari
Izan gaitzazu gu urrikari

-2-

Haur ttiki ttiki ginelarik,
Beldur gaichto bat ginuelarik,
Amaren besotan zaudelarik,
Izituak ginauden gorderik

-3-

Nahiz ginden noizpeit handitu,
Halere bethi haurrak gelditu,
Egun batez... Amaz gabetu,
Eta umezurz ginen atzartu

-4-

Bainan, orduan, Ama ona,
Zu laster hurbildu gure gana:
Bihotzari kontra, gizona
zure haur zen bethikotz egina!

# XXVI Salve Regina

Ch. Bordes

\- 1 -

Agur, Ama urrikalmendukoa } bis
Agur, agur, Ama zerukoa! } bis
Behadazu, esperantza bakarra,
Zuri kontra heldu zautzu haurra:
Zure bihotz-besoak zabalzkitzu,
Besarkatuz tinki atchikzazu!

\- 2 -

Lurgainean ez da nigarrik baizen, } bis
Nigar hoiek ez zauzku athertzen! } bis
Desterruan, herratuak goazi,
Egun oroz hiltzen ariz... bizi!
Hirka hortan, norat egin, arima?
Zure ganat bakarrik, oi Ama!

\- 3 -

Zure ganat hurbildu naizeneko, } bis
Goibeldurek egin dute uko! } bis
Iguzkiak ez du hala argitzen,
Nola niri baitzare agertzen!
Orai danik ez naiz ikaraturen,
Zeren, Ama, niri hurbil zaren

\- 4 -

Begi onez beha diezaguzu, } bis
Makurretik begira gaitzazu! } bis
Jainkoaren ondoan, arateko
zauzku, Ama, zu baliatuko;
Zure Jesus daukuzu, hil orduan,
Ama ona, emanen zeruan!!!

## XXVII Jesus Kurutzefikatuari

Air: Ô, toi, qui du Chrétien

### Errepika

Kurutze gainean, gure Jesus Maitea,
Oi, zer bihotzmina zu hiltzen ikustea,
Zure azken hatsa botatzen entzutea
Zure Amarekin nigar egitea!

1 Templuko beloa huna, nun den, urratzen,
Lurra ikaratzen,
Hilak, hobian, phizturikan ilkitzen,
Argia ilhuntzen!

2 Itsasoa bera orroaz da aditzen,
Harrokak kraskatzen
Bularreri joka, etsaiak du aithortzen:
"Jainko Semea zen!"

3 Burua dilindan, hurbildik ikusteko,
Musu emaiteko;
Besoak zabalik gure besarkatzeko,
Gu tinki hartzeko!

4 Zangoak josiak, gu igurikatzeko,
Ihes ez joaiteko;
Bihotz zilatu bat, gu oro gordatzeko,
Gu gerizatzeko!

5 Nola guk ez maita hoin maite gaituena,
Jainko bat hoin ona!
Neretzat osoki odol-hustu zarena...
Zurea naiz dena

## XXVIII Agur Maria, Ama maitea!

A. Herfelinek

Agur Maria,
Ama maitea,
Agur Maria
Ama maitea!

Refrain
Agur, Agur Maria
Agur, Agur Maria!

XXIX O Jainkoa, urrikal! 5

O Jainkoa, zeruetan, urrikal zaite gutaz !
O Jainkoa, zeruetan, urrikal zaite gutaz
(3 fois)

# XXX Soldadoen Eguerri

Air: Bergers, laissons la garde ...

Imbert

## Errepika

Jesus haurra sorthu da Eguerri gau huntan
Emaiten gaituela, alegrantzietan!
Jesus haurra sorthu da, Eguerri gau huntan
Emaiten gaituela, alegrantzietan, alegrantzietan

Oi Jesus haur ttikia soldadoendako,
Aurthen gure othoitza duzu adituko;
Hemen gure othoitzer duzu behatuko
Eta gure umeak han gerizatuko!

Gure soldado onak, iragan urthetan,
Iro egonak gare dolu-min handitan ←
Bozkario guti zen Eguberritan,
Nigar gocho gehiago bazter guzietan!

Gerlako Eguerriez zaizte orhoituko,
Eta ikara batek zaituzte hartuko;
Nigarño bat zaitzue orori jaliko...
Gure amodioak baitu chukatuko!

O Jesus-haur ttikia, soldadoendako
Bethi gure othoitzer duzu behatuko:
Arima eta gorphutz dituzu zainduko...
Hainitz eguerri, hemen, dute ikusiko!

Decembre 1919

# XXXI Bihotz - Sakratuari

F. Boissière

-1-

Zeru lurren Errege Jauna,
Guretzat gizon egina,
Orotarik kanpo emana,
Heldu gare, gaur zu-gana!

Errepika
Oi Jesusen bihotz ona,
Horra, horra Eskualduna!
Bihotzetan preziatuena,
Bihotzetan kartsuena,
Sar zaite, sar, Jesus Jauna,
Eskualdun etchetan barna!!

-2-

Zuk gaituzu, Jauna, kreatu,
Zuk oraino gu salbatu!
Nola beraz gizonak zaitu
Errabian arbuiatu?

-3-

Sar zaite, sar Eskual-herrian,
Sar Eskualdun familian,
Eskualdunen erdi erdian,
Eskualdun odol garbian!

-4-

Gure pena bozkariotan,
Gure gora-beheretan,
Jesus ona, zu, gurekilan
Izanen zare, orotan!

## XXXII Jainkoa gabe, gu, deusik ez 6

Errepika

I Zombat zoro Jainko ona,
Fede gabe den gizona!
Bethi-danik zure gana
Itzuli da Eskualduna!

-1-

Zure ganik behar ditu haur ttikiak
Ama on baten, maina bereziak.
Hain hauskor, dire aingeru hoik guziak...
Orai sorthuak, sarri ehortziak!

-2-

Handitu eta berdin hauskor gelditzen,
Sekulan bezala zutaz beharetzen!
Loreak iduri, gazteak jalitzen...
Hogoi urthetan... hek bezala hiltzen

-3-

Gizona orhoit haur horiek bezala,
Oro Jaunaren gatik dituzkala;
Eguerdian ez duk handia itzala,
Ttikiago, hik, oraino ahala!

-4-

Zahar gaichoa hire azken egunak
Sainduetzekotan zerauzkik emanak!
Zorigaitz guri, Jainkoaren orenak
Ez bagaitu atchemaiten zuzenak!

# XXXII Jon Doni Petriri

A Kunc

Errepika
O Jon Doni Petri,
Beha guri,
Othoitzean ari,
Gaude zuri!

-1.

Jesus zinuen arnegatu,
Irtzegun saindua ukatu,
Bainan hutsa duzu garbitu,
Eta nigarrez chahutu!

-2.

Oilarra kantuz ari bazen
Lotarik zinen atzartzen,
Eta belhauniko erortzen
Nigar eta nigar urtzen!

-3-

Hainitz duzulakotz maitatu,
Dautzu Jesusek barkatu:
Bere ondoko egin zaitu,
Elizaren buru hartu

.4.

Biziaz grinatua guti,
Estekan kurutze bati
Hil izan ziren, zangoz goiti,
Eta buruaz beheiti!

-5-

Zeruan hoin handi zarena
O Sempereko patroina,
Izan zaizkigu bethi ona,
Maita zazu Eskualduna!

## XXXIII Kontsolatzaile dibinoari 7

Penetan direnen kontsolatzailea,
Abrikari gakizkitzu haur dohakabeak (bis)

Zatozte, zatozte nereganat (etc...)

Finir par le 1er Penetan direnen

# XXXIV O Ama gurea 8

1.

O Ama gurea
Hauche da, mendea!
Norat ihes egin,
Nori hel galdegin
O Ama gurea!

Errepika

Hel othoi, hel, Ama Birjina
Laster egizu gure gana!

-2.

Kanoiak zafraka,
Mundua borroka!
Entzunatzu Amak,
Entzunatzu haurrak!...
Kanoiak zafraka!

-3.

Oi zer odolketa,
Oi hilez, zer meta!
Sobra kondatzeko
Sobra... ehorzteko...!
Oi zer odolketa!

-4.

Zombat etche hutsak,
Bazterrak zoin hitsak!
Burdinez ihauri
Kampoak ageri...
Zombat etche hutsak!

-5-

Aski hola, Jauna,
Aski, Ama ona!
Nigarrez urtua
Hor dago mundua...
Aski hola, Jauna!

-6-

Semea amari
Aita ber' haurrari,
Nahiko baituzu,
Itzuliren duzu...
Semea amari!

-7-

Orduan, guk, zuri
Bakezko, Jaunari,
Nolako eskerrak
Eta zer nigarrak,
Orduan, guk, zuri!

## XXXV Zu zare Ama gūrea 9

-1.

Ama Birjina maitea,
Zeruetako Athea,
Parabisuko Lorea,
Zu zare Ama gūrea!

-2.

Izar ororen Izarra
Zu zare gure Bakarra!
Jesus. Haurra da zurea,
Bainan, zu, Ama gūrea!

-3.

Haurrak beren amendako
Eta amak haurrendako
Bakotchak badu berea;
Bainan, zu, Ama gūrea

-4.

Bego ura arrainari,
Desertuak lehoinari,
Hegaztinari airea,
Zu, Ama, zaude gūrea!

-5.

Nigar. toki hau utzirik,
& Etcharriren zaukularik
Airatzeko tenorea,
Zu, Ama, zaude gūrea!

## XXXVI — Behazadazu Jesus

Air : Dieu de paix et d'amour
Ligonnet

– 1 .

Ortziraile sainduz, arratsalde erditan
Hiltzen ari zinen, hiru orenetan
Behatzen zinuen menderen 'ta mendetan
Gizon guzieki, guzieri betan !

Errepika

« Ah ! niri ere, Jesus, oren lazgarri hartan
Kurutze gainetik behatu zinautan,
Berriz ere orai mende galgarri huntan
Oi behazadazu zeru gorenetan »

– 2 .

Behatuko duzu ene bekatuari
Nola medikuak bere eriari :
Norbait izaitekotz, ni naiz, bai, ni naiz eri
Bainan sendatzen naiz, zuk behatuz neri

– 3 .

Urrikalmenduzko behatze bat emazu,
Eta zure haurra gabbia dukezu,
Nik merezi gabe barkatzen derautazu
Bainan zure soaz, seguratzen nauzu ;

– 4 .

Zure so horrekin, zure odol saindutik,
Chorta bat dadila eror kurutzetik,
Odol horrek garbi nezala bekatutik,
Nezala geriza, ifernuko sutik

## XXXVII Maite zaitut zeruetan

H. Poyvet

Maite zaitut zeruetan,
Maiteago kurutzean,
Maiteago odoletan
Azken hatsa botatzean

Maite zaitut bihotzetik,
Bainan ez zerua gatik
Gaizkia higuin badut nik,
Ez da ifernua gatik

Ez baliz ere zerurik
Ez et' ere ifernurik,
Maite zinduzket hakarik
Aski zait Jesus ik bakarrik

Banakike zu maitatzen
Ez banu er' esperatzen
Deusik ez dut nik bilatzen
Zure maitatzea baizen!

## XXXVIII Eskualdunak zure

Air : Royauté du Christ

Munduak bazaitu ukatzen,
Orotarikan urruntzen ;
Eskualdunak zaitu bilatzen,
Bihotzetikan maitatzen

Errepika
O bai, gu Eskualdunak,
Zuri gaude denak !
Zuri, ukho daudenak
Ez dire Eskualdunak

Ezarrari zaio urrikiko
Bizi huntako bereko,
On balitz ere bizitzeko,
Deus ez balio hiltzeko !

Egun zerbait bada gaichtoa
Bihar ilhaun bat doi. doa !
Haizeak deraman ostoa
Ez da hala harrotua

Har bat bihotzean, higatuz,
Badoha bethi ahituz,
Deus ez dezake egin gostuz,
Jainkoa zu laidostatuz

Zombat dohatsu Eskualduna
Bethiti maite duzuna :
Hura zurea, zu harena
Nun holako zoriona ?

## XLIX Jainko handiari

Air: Gloire à Dieu dans ses Saints

Zeru gorenetan, zeru gorenetan
Ohore Jainkoari, Jainko handiari
Zeru gorenetan, zeru gorenetan
Ohore Jaunari, Ohore Jaunari

Zombat ez deus naizen Jaunaren aintzinean,
Zoin ezkhaztagarri gaichto naizenean,
Ez naiz gutiago Jainko haren menean,
Jatzartzen nitzaionean!

Barka Jauna, barka ene atrebentzia
Ni ahula banaiz hazkar da grazia;
Graziari esker zurea naiz guzia,
Ogal bidea dut utzia!

Bide hoberena, dut beraz nik hautatzen
Nere nausiari nitzaio segitzen;
Ikusten banautzu sekulan flakatzen,
Lagunt nezazu chutitzen

## XL Zuri hurbil

Air : l'ombre s'étend
Lambillotte

Zuri hurbil, Jainko ona, huna gu gaur bildurik,
Zure ganat ihes jinak, munduak izitwrik
Aingeruen Jainkoa, Jainko zerukoa,
Gizon herbail ilakoa, Zuk naiz gerizatzekoa!

Inguruka guri buruz, debrua errabian
Bethi gu iretsi nahiz, saltatzera abian!

Jainko Jauna, nik bihotza nola gorda garbirik
Hartan ez nuke nik nahi ez eta porrochkarik

Zuk eskua niri heda, horra ni salbatua,
Irroaz jazar hitake, aingeru damnatua!

Esku batetik Jainkoak, Ama onak bertzetik
Nola ez naiz bada hola jaliko gal. bidetik!

XLI

# Zeruko Dohatsueri lurretik oihua

Air: Du séjour de la gloire

-1.

Zeruko dohatsuak zer ari zarezte?
Atseginen erdian zareztea othe?

Réponse

Atsegin handienez gare inguratuak,
Bihotz eta begiak hor lilluratuak!

-2.

Munduko atseginak ja zerbait badira
Zuenaren aldean zertsu othe dira?

Réponse

Khe bat baizik ez dira lurreko atseginak
Itzal hits baten pare zuen zorionak!

-3.

Apostolu handiak Krichtoren lagunak
Zertan daramatzue gau eta egunak?

Réponse

Ez egunik eta ez gauik ez da ez guretako,
Hamabi tronuetan gaude sekulako!

-4.

Martyr hazkarrak zuek odolez hustuak,
Zer gozo ditutzue ordain izatuak?

Réponse

Bildotch churiñoari hurbil, hurbilenanak,
Zerueko sainduetan gare urosenak

-5.

Birjina loredunak, elhurra iduri
Zer saria zautzue emana zuri?

Réponse

Gu ere bildotcharen ondotikan gabiltza,
Hegaldaka zeruan kantatuz goatza

-6.

Parabisuko saindu eta aingeruek,
Zer egin behar dugun guri erran zuek ?

Réponse

Jainkoari emanez zuen bihotz guzia,
Gozatuko duzue hemengo bizia



## XLII Zoin maite zaitudan heia tchar batean !

Air : que j'aime ce divin enfant

-1.

Betelemeko heian,
Lasto hutsaren gainean
Jesus ttikia etzana,
– Zoin maite zaitudan –
Doi doietan jina
Heia tchar batean !

-2.

Gauerdi da, negu mina,
Horma ari du samina ;
Bi animalen erdian,
– Zoin maite zaitudan –
Hotzez ikaretan,
Heia tchar batean !

-3.

Horra belhaunka emanak
Bihotza sutan artzainak,
Othoitz kartsuetan ari ;
– Zoin maite zaitudan ! –
Zu hirriz heieri,
Heia tchar ~~ba~~ batean

-4.

Ama Birjina gaichoa
Eta San Josep maitea
Lorietan zuri beha ;
– Zoin maite zaitudan ! –
O Gaurko loria,
Heia tchar batean !

-5.

Izarrak zuri begira
Horra, dantzan hasi dira ;
Taula-zirrituetarik zuri
– Zoin maite zaitudan ! –
Ora hirriz hari,
Heia tchar batean

-6.

~~Ja~~ Aingeruek, gaur, zerua
Trumilka dute hustua.
Hauche da hegal-burrumba !
– Zoin maite zaitudan ! –
Zerua gaur hor da,
Heia tchar batean !

-7.

Iguzki ederra baino
Zarelakotz ederrago
Besotan hartuvik, Jesus,
– Zoin maite zaitudan ! –
Jaten zaitut musuz
Heia tchar batean

-8.

Jesus ttikia, gauhuntan
Huna, gu, bozkariotan !
Bihotzez, "Ongi Ethorri !"
– Zoin maite zaitudan !"
Bai "Ongi-Ethorri"
Heia tchar batean

-9-

Benedikazatzu haurrak,
Gazteak eta zaharrak!
Ochoi behazu Sempereri,
- Zoin maite zaitudan! -
Behazu orori, ...
Heia tchar batean

Decembre 1917



## XLIII Haur gazte Eskualduneri

Air: Etre enfant de Marie
Lambillotte

-1-

Haur gazte Eskualduna
Mariaren haur ona
Haur dohatsuena
Zato Amaren gana
Ahalik hurbilena

Errepika

Ametan eztiena
Ama maiteena,
Zuri kontra emana
Ni hemen naiz huna!

-2-

Bihotza ikaretan,
Begiak lorietan
Amaren oinetan
Guretzat gisa hortan
Zerua da lur huntan
Amaren besotan

-3-

Ikas horren maitatzen
Horri hurbil bizitzen
Ongian higatzen;
Ez ikas ofentsatzen
Horren ganik zeihartzen
Gaizkirat erortzen

-4-

Zure ama maitea
Baita nota-gabea.
Ikorroch garbia
Zuri doa gaztea
Garbirik egoitea
Churi izaitea!

-5-

Maria zuk maitatuz
Harek zu gerizatuz
Zoaz deskantsatuz
Behar balitz penatuz
Zoaz, zoaz pairatuz
Munduan patituz

-6-

Mundua patitzeko,
Zerua gozatzeko,
Nork ez du nahiko?
Debrua jazartzeko,
Maria, zu, zaintzeko
Nor ez zeruranko?

# XLIX Jesus Ostian preso dagonari

Air : Jésus est la bonté même

1

Hemeretzi mende hautan, presoner hor zaudena
Zer ikusi duzu hortik gauaz eta egunaz, Jauna
~~Jauna~~ ainitz etsai ephel eta ezazol Jesus ona
Urrikal urrikal othoi adichkidetan hoberena!

2

Guretzat duzun bihotzak zaitu preso emana
Guretako amodioz ostian hil bizi egina!
Eta hoimbertze mendeez, nor heldu zure gana
urrikal, urrikal othoi, adichkidetan hoberena

3

Zure presondegi hortan, oi bihotz samurrena
Zonbat luze bakarrikan uzten zaituen gau ilhuna!
Bakarrik gero egunaz, oi zure bihotz mina
Urrikal, urrikal othoi, adichkidetan hoberena!

4

Aldareko argi orde hortchet banintz emana
Zonbat uros nindaiteken oi argi horren zoriona!
Oraitik egizu nitaz argirik biziena!
Urrikal, urrikal othoi, adichkidetan hoberena!

J. Barbier

# XLV. San Agustinen othoitza

## 1

"Zu zare oi Jesus ene Jainko ona
Ni kreatu nauena
Zu zare leizetik salbatu nauzuna
Nere aita, nere Jauna
Jaunik hoberena!

## 2.

Zuhauren argiez nauzu ni argitzen
Zuhaurek sosegatzen,
Zuhaurek gaizkitik nauzu gerizatzen
Zuri kontra besarkatzen
eta seguratzen!

## 3

Zure odolak nau egin hazkarrago
Bai eta garbiago!
Debrua ezartzen deraut urrunago;
Zuri esker chutik nago
Bethi fierrago!

J. B. Barbier

## XLVI Ama Birjinari Kreatura guziek, agur (A. Kunc)

Jainko Jaunak egin obra handiek
Goresten zaituzte, Ama, guziek!

Agur, agur, agur Maria, Agur, agur, agur Maria

Aingeruek eta zeru ederrak,
Zerua itzatzen duen izarrak

Igau ederrean ilhargizariak,
Egun bethean aldiz iguzkiak

4 Menditik zafraka heldu haizeak
Hedoien arthetik jali ortziak

Abri erauntsiak igar ihintzak,
Beroak bezala horma 'ta hotzak

Negu beltzak eta elhur churiak,
Aldazken uda eta primaderak

Mundu zabal eder eta handiak
Zelhai phendeak bezembat, mendiak

8 Ohanetako arbola ~~zabalak~~ zaharrek,
Kampoetan, lore, uzta ederrek

Ibai nasaiek, itsaso samurrak,
Menditik erasian heldu urak

10 Itsasoko arrain handi ttipiek
Airean kantuz doazan choriek

Lurreko bestia mota guziek,
Eta bortuetako ihiziek

12 Mundu zabaleko Errege Jaunak
Lauda ohora zaitzala ... Gizonak

(à suivre)

Zuré zerbitzaritan hoberena
Izan gaitezela gu, Eskualdunak

T3

# A Marie immaculée

Airea : Qui donc a.t.u · Céleste message

1

Nor zare zu, goiz ederraren pare,
Oi zeruko Andre distiranta ?
Ur-hegiko harpean chutik zare
Argiaren ahizpa charmanta.
Nahi duzuia argitu
Gure bide galgarria ?
Jainko Jaunak othe zaitu
Gure "Izar'' igorria ?

2

Nor zare zu, arrokarri berari
Manatzeko baitzaizkitu ethorri ?
Zure manuz, gaitzaren sendagarri,
Harri minak ura du ekharri...
Zer zare, ala erien
Zeruko salbamendua !
Eta etsitu guzien
Loriatzale saindua ?

3

Negu-haizek histu lilien orde,
Nork dauzkitzu arrosa hoik sortu ?
Zure oinak loren artean daude :
Andre ona, nor zaren errazu !
Zure jauntzia, ederrez,
Zoin garbi eta arrosa !
Nago zuhaur etzarenez
Jaunaren goiko arrosa !

— Ni naiz, ni naiz Bekaturik gabe Kontzebitua !

11 Nov. 1951

## Aingerua eta Arima

Airea : "Un chérubin un jour dit à mon âme"
Paroles françaises de Mgr. de la Bouillerie
Musique de J. M. Garin.

1

Erran zautan aingeru batek behin :
« Bazinaki zoin dohatsu naizen !
« Bat egina zeru-argiarekin,
« Haren garrek naute jainkostatzen ... »

Erran nion aingeruari sutan :
« Aizu duzu zeruko dohaina ;
« Ez dakizu Ostiak eman dautan
« Zoriona, zoriona, zoriona ! »

Errepika

Biek . Biek lauda gure Aita maitea,
Hain da ona Jainko amultsua !
Arimek Nik nahi dut Ostia (bis)
Aingeruak Nik zerua, oi bai, nik zerua, nik zerua !
Biek Biek kanta gu bien loria !

2

Aingeruak erran zautan bertzalde :
« Beha gaude Jainko handiari ;
« Zoin den eder espantituak gaude !
« Bethi zahar eta bethi berri .. »

Nik ordainez : « Zu bekhatu gabea,
« Ez zaitezke gauza bati ohar :
« Zoin gocho den Ostiari jartzea,
« Oro nigar, oro nigar, oro nigar ... »

3

Aingerua eintzina mintzatu zen :
« Jainkoaren adichkide nago ...
« Haren maitez zait bihotza erretzen
« Harekin bat, bethi urusago ... »



Erran nion : « Ez nauzu jelostuko !
« Gocha zazu gain hartako janna !
« Zuk ez duzu gure Aldaretako
« Ogi ona, ogi ona, ogi ona ! »

P. L. 31 oct. 1947.

## Ama Birjinaren gerizapean jartzeko

Airea : "Garde moi sur ton cœur"

1

Begira nezazu, ene Ama Saindua !
Deus ez naiz zu gabe ; zurekin zer nahi.
Zu gabe huts laite eta ilhun... mundua :
Zoriona ere... zorigaitz lazgarri.
Zure hegalpean, zoin gocho... sofritzea !
Zure ganik urrun, plazerra ... zoin mintsu !
Harbil zaituenak ez hain tchar... erortzea !
Oi Ama Birjina, begira nezazu !

2

Begira nezazu zure bihotz garbian,
Berokí atchikiz ene fede hotza :
Munduko galernak bere haizen azpian
Trhauts bailezaket bertzenaz bihotza.
Bazter guzietan besta eta atsegin,
Gehientsuenak gaizkirat lerratsu...
Bide-beltzetarik garbi athera nadin,
Oi Ama Birjina, begira nezazu...

P. L. 31 oct. 1947.

—

## Aphez berrien Kantika

Air : C'en est donc fait...

1

Jainko Jauna, huna non heldu naizen
Zure deia ttipian entzunik;
Bozkarioz bihotza zaut gainditzen.
Nehun ez da nere zorionik.
Nork dezake asma nere loria ?
Zurea naiz, Jauna, sekulakotz...
Zin eginik, har nezazu guzia.
Huna ni aphez bethikotz !

Errepika

Urrun zaizte, munduko atseginak.
Bai, alde bat adios deneri...
Osoki bethe nau zeruko bakhe onak :
Eman naiz Jaunari !

2

Egun batez, jakin dut, zuk erranik,
Segurrago sartzeko zeruan,
Joan beharko nintzela gazte-danik
Aldarerat doaken bidean.
Aldarea ! oi zer chede gochoa !
Desterruak ez nu segur lazten ;
Zuri hurbil, ontsa da haur gaichoa :
Penak zaizkio ahanzten...

3

Jesus Jauna, manatzen duzu beraz
Bereziki zu maitha zaitzadan.
Orai arte maithatu guzietaz
Behar zaitut gorago ni baithan...
Bainan hetaz mezetan orhoiturik,
Egun oroz othoitz dut eginen ;
Gerochago elgarrekin bildurik
Denak zerura gaitezen...



4

Zen gutien urriki ttipiena.
Ez dut izan zu gana jitean ;
Bihotzeko nere fuhts hoberena
Eman dautzut alegre handian.
Fini dela, baitio mundutarrak :
Ez, zozoa, haste duk guretzat...
Bertze haren, ontasun galgarriak :
Bethi daudenak, enetzat...

P. L. 28 juin 1936

## Jesus-Haurraren Theresa Sainduari

Airea : "Rose de France"

Errepika

Jainkoaren baratzeko arrosa,
Bota lore, zeru gainetarik.
Jesusentzat, oi Jesusen Theresa,
Emaguzu bihotza kharturik.

1

Ifernua hasarretu baitzaikun,
Lur guzia sustatuz gaizkirat,
Jainko Jaunak, guduetako lagun,
Sortu zaukun neskatcha saindu bat...

2

Komentuko lan arruntak eginez
Bazakien nola Jesus maita :
Nahigabe eta eritasunez
Ohoratuz bere Jainko Aita !

3

Karmeleko lore gorde umila,
Zeruetan eder da altchatu :
Mundu huntan aphal bizi dadila
Nahi dena bertzeaz gochatu...

P. L. 31 oct. 1947

## Jesus itzalik dago

Air : Jesus dans ce mystère...
V. Saurin édit 1931, p. 110

1er couplet

Jesus itzalik dago michterio huntan :
Bera emaiten zaiku hemen janhanaritan.
Dugun denek adora menderen-mendetan

Duo

Jainko Jauna, zu baithan dut sinhesten
Etzait aski sinhestea...
Nahi zaitut ikhusi bekhoz-bekho,
Zu holeki maithatzeko...

Chœur

Oi zurekin har nezazu,
Zeru gorenerat othoi bil nezazu,
Bai zurekin othoi har nezazu
Bai zurekin har nezazu...
Jesus !

2ème couplet

Zeruko eskualdetan ez da zorigaitzik ;
Ez da hautatuentzat atseginik baizik :
Noiz duket tenorea, oi agian goizik...

Duo et chœur
comme ci-dessus

3ème couplet :

Nere burua baino hainitz gehiago
Maite zaitut oraitik zinez, Jesu-Kristo !
Zer daiteke zeruan, agertu ~~k~~ orduko ?

P. L. mai 1935



Bazkari handi eginik,
arno hainitz edan baitzuten,
Pello eta Joasttipi
hasi ziren biak samurtzen ;
gasna gocho ttipi batez
zuten bazterra inharrosten,
Bakotchak gasna osorik
bereber jan nahi baitzuen !

Pellok bakearen gatik
erran zion Joasttipiri :
« Pentsatu diat zer egin :
beha hunat, ene planari :
lokar gaiten berehala,
lotuz nor gure ametseri ;
Bihar gasna izanen duk
amets ederrenaren sari !

Chede hori onhartuik
biak etzan ziren gostura :
Bainan gauaz Joasttipi
jeiki baitzen ur edatera,
Bide-nabar jin zitzaion
chede berri on bat gogora :
Ichil-ichila, bakarrik,
joan ~~[illegible]~~ zen gasnaren klikatzera.

Bazkari handi eginik,
arno hainitz edan baitzuten,
Pello eta Joasttipi
hasi ziren biak samurtzen;
gasna gocho ttipi batez
zuten bazterra inharrosten,
Bakotchak gasna osorik
bereber jan nahi baitzuen !

Pellok bakearen gatik
erran zion Joasttipiri :
« Pentsatu diat zer egin :
beha hunat, ene planari :
Lokar gaiten berehala,
lotuz nor gure ametseri ;
Bihar gasna izanen duk
amets ederrenaren sari !

Chede hori onhartuirik
biak etzan ziren gostura :
Bainan gauaz Joasttipi
jeiki baitzen ur edatera,
Bide-nabar jin zitzaion
chede berri on bat gogora :
Ichil-ichila, bakarrik,
joan zen gasnaren ttlikatzera.

Goizean goiz gure Pello
atzarri zen alegerarik,
Joasttipi lo zurrungan
deskantsuan ari zelarik :
Atzarri zuen erranez :
« galdua duk hemen goitirik!
Adi-zak ene ametsa
Ez zitakek ederragorik!

Lokartu nizan orduko
zeru-zola zaitak ideki,
Jainko maiteak deiturik
behar bainintzaion jarraiki,
Suzko lanhoen gainean
lau arranok nitek ekarri,
Zeru ederretan barna,
ehun aingeru musikari! »

— "Amets ederra egin duk,
dio bertzeak, bainan huna
Orentsu hortan berean
mundu huntan gertatu dena :
Han ikusi hutanean
lanhoz-lanho zerura joana,
Ustez bethikotz joan hintzan,
Nik jan diat bardako gasna! »

Messieurs les Professeurs
et chers camarades

Après l'agréable journée que nous venons de passer sous les auspices de Notre Dame de l'Aubépine et qui nous a promenés de la montagne à la mer, je ne sais pas si vous avez grande envie d'écouter la petite séance récréative qui vous est offerte par des artistes encore bien novices.

Faute de talent prestigieux, ils vont vous montrer leur bonne volonté et vous les remercierez de vos charitables applaudissements.

Si les sketchs ne sont pas des plus rares, ils ont du moins l'avantage d'être courts : ils n'empièteront pas beaucoup sur votre sommeil : peut-être même qu'ils y aideront !

De toute façon, nous comptons sur votre indulgence et votre bonne humeur.

Merci d'avance !

---

La chorale ukrainienne

va venir exécuter devant
vous un de ses meilleurs
morceaux.

Vous verrez si le mot
exécution n'est pas, en
la circonstance, le mot le
plus juste.

Nous prions les âmes
sensibles de fermer les
yeux aux moments les
plus dramatiques.

Puisque nous voilà dans une ambiance dramatique, en attendant que le sketch suivant soit en place, permettez-moi de vous réciter : <u>le drame de la rue Quincampoix, à la manière de Victor Hugo !</u>

# Le ~~crime~~ drame de la rue Quincampoix

—

( à la manière de Victor Hugo )

Minuit... l'heure des crimes et des assassinats.

Je passais, solitaire, dans la rue Quincampoix.

Dans l'entrebaillement d'une porte cochère, j'entendis ces trois mots :

– Anatole, fais passer le couteau...

Je m'avançais...

Je regardais...

Je reculais d'horreur !

Je vis un homme,...

un grand couteau à la main...

Qui mettait... du beurre sur du pain.

═

Quand les douaniers de garde
jouent aux charades

Menus incidents
à propos des menus
de l'Excellente auberge
du "Panier Fleuri"

# Quatre clients bizarres
# chez le juge de paix

( d'après la gazette des tribunaux )

=

(7)

Comment le Dr Knock
se prépare des malades
pour élargir sa clientèle

—

La scène qui va vous être interprétée est de Jules Romains. Elle est extraite d'une grande comédie célèbre, où l'on voit un médecin charlatan réussir à mettre au lit tout un village et gagner tout l'argent qu'il veut, en suggérant à tout le monde qu'on est malade et que lui guérit toutes les maladies.

—

L'opération "drelin"
dans un ménage dont le mari
voudrait sortir de l'esclavage
où le tiennent sa femme et
sa belle-mère.

Menus incidents
au sujets des menus
de la "bonne Auberge"

Menus incidents
au sujets des menus
de la "bonne Auberge"